


EKAITZ TANKE BERRIA BIZKAIAN

Posted on 12/08/2014 by Naider



[](#)

Bizkaiko ekaitz depositu handiena Etxebarri herrian ari dira amaitzen eta datorren udazkenean martxan jartzea aurreikusten da. 33 milioi euroko inbertsioa duen azpiegitura honek 74.480 metro kubikoko edukiera du, eta horrek Euskadin dauden guztien artean handiena izango du.

Depositua bost solairuko eraikin baten antzekoa da, lurpeko depositu handi bat da eta bere eginkizuna kolektoreetatik soberan dagoen ura (gainez egiten duena) pilatzea da prezipitazio handiko garaietan. Euriak gelditzen direnean, deposituan pilatutako ura araztegiara bideratzen da pixkanaka, eta, horrela, tratamendu egokirik gabe ibaietara eta itsasora iristen den ur zikinen bolumena minimizatzen da.

Azpiegitura berri honen ezarpenak urtero tratatu gabeko 1.200 milioi litro ur isurtzea saihestuko du eta azken helburua da euri-urarekin nahastutako hondakin-uren % 0,5 baino ez dela tratamendurik gabe gelditzea da. [Ur Partzuergoa, urtean 130.000-140.000 milioi litro inguru. 2013an, jada martxan zeuden deposituek ia 1.700 milioi litro euri-ur eta hondakin-uren nahasketa ingurune naturalean amaitzea eragotzi zuten.](#)

There are no comments yet.